

{ datorrena } Maite Ubiria

Bizi guztiko kartzela zigorra giza eskubideen aberrian

Kartzela sistemak azkeneko hamarkadetan izan duen bilakaerak agerian uzten ditu giza eskubideen aberri ofizialak zigor-mendekua kulturari alternatibak xerkatzeko dituen zailtasunak. Presondegiei buruzko behatokien txostenek hala frogatzen dute.

Baita Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Frantziari ezarritako kondenak ere. 2018ko urtarrilean 68.974 pertsona ziren preso frantziar Estatuan. Aldiz, 59.765 plaza baizik ez ziren bertako espetxeetan. Kartzeletako gainpopulazioa irtenbiderik gabeko arazoa da aspalditik; 9 metro koadroko ziegetan bi, hiru, lau lagun izatea ohikoa da kartzela anitzetan. Ez da harritzekoa ere presoak lurrean jarritako koltxoietan lo egitera behartuta izatea. Masifikazioa bere burua herrialde garatuen artean kokatzen duen Estatuak kudeatzen duen kartzela sistemen alderik ilunetakoa izanik ere, ez da bakarra. Giza eskubideen aberrian badira mende erdia kartzela giro horretan igaro duten presoak. Horretan ere frantziar Estatuak Europako Kontseiluak ezarritako muga denak gainditu ditu. Aipatu erakundeak bost urte baino gehiagoko kartzela zigorrak kondena luzetzat jotzen baditu ere, frantziar Estatuak hamar urtetik gorako kartzela zigorrei baizik ez die aitortzen izaera hori. Zigor kodeen erformen bidez, eta terrorismoaren aurkako salbuespen legearen eraginez, horrelako kartzela zigorrak jasotzen dituzten presoek kopurua emendatuz joan da. Gaurgaurko zigor luzeak betetzen dituzten presoek batez bestekoa %12,8koa da Frantzian.

Europako Kontseiluaren arabera «askatasun faltari loturiko kalteek harremana zehatza dute espetxealdiaren iraupenarekin». Hori dela-eta, «espetxealdia ahal den eta gehien murriztea» gomendatzen du erakundeak, eta, «ezin denean, presoari espetxeko bizi-baldintzak leuntzea», hain zuzen ere, «pertsonaren suntsiketa» ekidite-

ko. Gomendio horiek, baina, ez dute oihartzun handirik izaten. Hedabide nagusien laguntzaz aldiro-aldiro gizar-tearengan pizten diren «alarmek» eta, oro har, jendearen kontrola areagotzeko eratu den sekurokraziak espetxeari alternatiba emateko sorturiko tresnen erabilpena zeharo murriztu du. Askatasunaren helmuga urrundu den heinean, preso sartzen dituzten herritarren perspektiba aldatzeaz gain, gizarteak kartzela unibertsoari buruz duen begirada ere desitxuratuz joan da, errealitate arrotz izatetik espektro bat izatera pasatuz. Hori gutxi ez eta esperantza bera bahitzen duen kondena bat ere bada: bizi guztiko zigorra. Frantzian espetxe muga 30 urtekoa izan arren, denbora tarte izugarri hori gaintitza ahalbidetzen du bizi guztiko zigorrak. Preso beteranoe-na izatearen zalantzazko ohorea izan zuen Michel Car-

Askatasunaren helmuga urruntzearekin, presoak duen perspektiba aldatzeaz gain, kartzela errealitate arrotz izatetik espektro guztiz lausoa izatera pasatu da

don hilaren 1ean atera zen libre... 40 urte eta erdiko espetxealdia egin ondoren!

Abdel Hafez Benotmanek bere kartzelaldiaren esperientziak partekatu zituen «Lettres contre la prison» liburuan. «Bizirik iraun, osasuna ez galdu, izaera gizatiarra atxiki eta data bat zerumugan izan». Bere gomendio sorta baliagarria da, hala nola, dagoeneko 28 urte kartzelan egin dituzten lau euskal herritarrentzat. Alta, horietarik hiruk –Unai Parot espainiar Estatuan dago– ez dute espetxetik irteteko datarik, hain zuzen Jakes Esnal, Ion Kepa Parot eta Xistor Haranburuk. Bizitzaren eta esperantzaren aldeko aldarria da, ezinbestean, Baionako karriketan gaur entzungo den oihua: «Egun bat gehiagorik ez». •

KALAMUA, URRE BERDEA

Marihuanaren geopolitika: Trumpen zain AEBak, Txina da superpotentzia berria

ATZERRIA / Mikel Zubimendi Berastegi

Erusiako mugaren ondoan dagoen Heilongjiang probintziako Hexin herrian bizi den nekazari baten lekukotzarekin abiatuko dugu kalamuaren geopolitikaz jardun nahi duen artikulu hau. Nekazariak kalamua landatu eta legalki hazten du. Zurtoina ehungintzari saltzen dio kalitate handiko arropak egiteko, hostoak industria farmazeutikoari medikamentuak egiteko eta haziak elikagai konpainiei, zizka-mizkak, kozinatzeko olio eta edariak egiteko. Harantz, kalamua urre berdea da: den-dena da posiblea. Buruan honako kalkulua egiten du etengabe nekazariak: soroko hektareak artoa landatzeko erabiliko balitu, askoz ere errentagarritasun txikiagoa izango luke. Eta, gainera, artorekin alderatuz gero, kalamuak ur gutxiago behar du eta etsai natural gutxiago ditu; pestizida garestietan dirua gastatu beharrik ez du, hortaz.

Txinako iparraldeko Heilongjiang eskualdeko klima ia artikoa da. Eta hala ere, hori da Txinako kalamu laborantza legalaren gune handienetakoa. Ez da, baina, bakarra. Hegoaldeko Yunnan eskualde subtropikalean ere indar handia du kalamuak. Eskualdeko agintariek ezizusiarena egiten zuten bertan betidanik kalamuaren laborantzaren aurrean; legala izan ez arren, ez zuten zigortzen. Iaztik, baina, legalizatu eta arautu egin dute. Eta Txinak beti egiten duen eran, handira pentsatuz eta ekinez egin dute; bi eskualdeok komertziorako kalamu legalaren munduko laborantza eremuen erdia baino gehiago dituzte.

Ez da kasualitatea. Izan ere, gobernuaren laguntzarekin

Estatuaren bultzadarekin eta kalamu tradizio luzea akuilu, ohi bezala isil-isilik eta handira pentsatuz eta ekinez, Txina bilakatu da urre berdearen superbote berria. AEBek ez dute, baina, geopolitiko den lehian atzera geratu nahi. Trumpek seinale argiak bidali ditu eta kalamuaren debekua historiara pasa liteke aurki.

eta Txinak kalamuarekin duen tradizio luzea akuilu, ohi bezala, isil-isilik, landare honen produkzioan eta ikerketaren superbote bilakatu da Asiatik erraldoia. Hazkunde hori, hein handi batean, erabilera militarretarako zientzialariek egindako ikerketak izan ditu

Langile bat erabilera medizinalerako marihuana plantazio bat zaintzen, Ontarion, Kanadan. Kalamu produkzioa, salmenta eta kontsumoa legezko egitear da Kanada, hori egiten G7ko herrialdeen artean lehena bilakatuz. Lars HAGBERG / AFP

oinarri (medikamentuak egiteko, uniformeak egiteko...).

TXINAKO ARMADAREN BULTZADA

Mendeetan landatu da kalamua Txinan, batez ere landarearen zuntz indartsuengatik, sokak, oihala eta papera egiteko oso erabilgarria zelako.

Duela 3.500 urteko Shang dinastiaren hilobietan kalamuz egindako oihalak topatu dira. Txinan sortutako paperaren lehen formatan ere aurki daitezke eta kalamu zuntzak. Kalamu hostoak eta haziak, aldiz, Txinako medikuntza tradizionalean oso erabiliak izan dira betidanik.

Txinako Herri Errepublika ezarri ondoren, Alderdi Komunistak gogor zigortu zuen kalamua, baina, praktikan, ohiakoa izan da THC kontzentrazio baxuko kalamua landatzen zuten nekazarien aurrean ezizusiarena egitea –*Cannabis sativa* landarearen barietate ezberdinak kalamuaren osagai psikotropikoa den tetrahidrokanabinol (THC) kontzentrazioak ezberdintzen ditu; kalamuak kanabinola (CBD) ere



badu, epilepsia eta Parkinsona tratatzeko erabili ohi den osagai ez psikoaktiboa-. 1970eko hamarkadan hasi zen Txinan gobernuak agindu eta ordaindutako kalamuaren ikerketa, herrialdeak Vietnamen kontrako gerra abiatu zuenean. Armadak Vietnamgo hezetasunari aurre eginez soldaduak garbi eta siku mantentzeko oihak bat garatu nahi zuen, eta, kalamuak, bakterien kontrakoak eta transpiragarriak ziren zuntzak eskaintzen zituen.

Hamarkadetan zehar armadaren esanetara aritutako ikertzaileek garatutako espezie hibridoak ez zuten soilik bizirik irautea lortu, Txinako ingurune ezberdinetan aurre-egitea ere lortu zuten. Hala nola, aipatu Heilongjiang probintzia izoztuan, Gobiko basamortuan edo Yunnan eskualdeko oihan subtropikaletan.

Orduan abiatu ikerketen emaitzak bistakoak dira gaur egun. Datua ezin argigarriagoa da: Jabego Intelektualaren Mundu Erakundearen arabera, *Cannabis sativa* landarearekin zerikusia duten munduko 600 patenteetatik erdia baino

gehiago dira Txinakoak. Eta horrek asko kezkutzen du Mendebaldeko industri farmazeutikoa. Batez ere Txinako industria patenteen lasterketan abantaila handia hartzen ari delako. Horra marihuanaren geopolitikaren beste aurpegi bat: marihuana Mendebalde-

Goian, marihuana porroa. Behean, nekazariak Txinako kalamu soro batean lanean.
GAUR8



ko medikuntzan gero eta onartuago dagoela kontuan hartuz, eta zientzia farmazeutikoetako patenteetan txinatarrek duten nagusitasuna hain handia izanik, ba mendebaldar itxura, edo mozorroa, hartu lezakeen txinatar medikuntza gure artean luzerako geratzeko izan dezakegu gure herriko edozein osasun etxetan eskuragarri.


DENA SALGARRI, DENA MOZKIN

Tan Xin Pekineko Hemp Investing Group enpresako nagusia da, hau da, kalamuaren erabilerara farmazeutiko komertzialaren aldeko Txinako talde handienaren burua. Adierazi berri duenez, Armadarekin eskuz esku ari dira lanean kalamuaren gainean Txinak pila-tutako jakintza, teknologia eta produktuak munduan zehar zabaltzeko. Besteak beste, gerretatik bueltan soldaduek ohikoa duten estresaren kontrako farmakoa landu dute elkarrekin; azken entsegu klini-

koetan dira, eta, jada, emaitza merkaturatzear dira. Tan Xinen kalkuluen arabera, datozen bost urteetan, marihuanaren industriaren negozio bolumena 150.000 milioi euro handituko da Txinan.

Hemp Investing Group taldeak bulego ugari ditu AEBetan. Kanada, Israel, Japonia eta European ere laster zabaltzekoak ditu egoitza berriak. Are, eta hona hemen urte berdearen geopolitikaren beste zantzutatu bat, Txinaren “Gerriko bat, Bide bat” azpiegitura ekimen erraldoiaren baitan, kalamuaren inguruko txinatar jakintza eta teknologia beste herrialdeetara zabaltzeko eskaintza egiten ari dira.

Arestian aipatutako Heilongjiang probintziako gure nekazaria, kalamu soroetan traktorea hartuta eguna pasatu ondoren, etxeratu da afaltzeko. Kalamu haziekin egindako usain gozo eta gustu oso oneko olioarekin prestatu dio



afaria emazteak. Ez da lehen aldia izango afal ostean zorabiatu xamar sentitzen dela. Ez, ez da askotan hartzera ausartzen. Era berean, etxalde ondo-ko nekazari lagunak kalamuaren haziak, pipak bailiran zizka-mizka bezala jateko eraman ditu afaltzeko. Ez dira inondik ere kaltegarriak. Ez. Aitzitik, zerritik bezala, kalamutik ere dena aprobetxatzen da. Dena du salgarri eta mozkin.

TRUMPEN ARGİ BERDEA

Munduko beste superpotentziari begiratuta, AEBetan kalamuaren inguruko giroa oso azkar aldatzen ari dela esan behar da. Horren erakusle, estatu eta herri mailan marihuana legeztatze-ko ekimenak aurrera atera dira azken urteetan. Aldiz, maila federalean nahiko izoztuta egon da kontua, bereziki Donald Trump presidenteak Jeff Sessions kalamuaren debekatzailerik sortutako arazo pila batekin aurkitzen ziren. Gauza jakina da, noski, AEBetako legedia aurka izanik, zaila dela oso edozein arlotan aurrera egitea.

Aipatu seinale guztiokina eta Trumpek hartutako jarrera berriarekin, ikuskizun dago orain ea kalamuaren geopolitikan egoera orekatuko duten ala ez AEBek, marihuana industria turismoaren eta entretenimenduko sektorearen parte bilakatuko den, dagoeneko Kalifornian onartutako legalizazioa *online* zabalduko den ala ez... Goiz da oraindik jakiteko. Baina Trumpek hori lortzeko aukera zabaltzeko duela begi bistakoa da.

Berriki, baina, Senatuko buru Mitch McDonell errepublikano kontserbadoreak, marihuanaren legalizazioaren kontra izanagatik, kalamuaren landaketa eta produkzioa legalizatzeko deia egin du. Nekazari-entzatz oso onuragarria litza-tekeelako, eta ez bakarrik bere estatua den Kentuckykoentzatz.

Mitch McDonellek, azken finean, estatu bakoitzak marihuanaren politika propioa garatzeko eskubidearen berme federala eskatu du, eta Donald Trump presidenteak ez du kontrako iritzirik adierazi. Gai honetan eskua ez sartzea erabaki du, politikari bide ematea; horren erakusle, argi berdea eman dio marihuanaren inguruan AEBetako Kongresuan inoiz abiatutako ekimen

Txinak garatutako kalamu espezie hibridoek, bizirik irauteaz gain, ingurune ezberdinetan egin dute aurrera, ingurune izoztuetan, Gobiko basamortuan zein oihan subtropikaletan

Trumpen argi berdea aurreratuz, AEBetako Senatuak aho batez onartu berri du kalamuaren «balio ekonomikoa» eta «esanahi historikoa» aitortzen dituen ebazpen ez loteslea

Ezkerrean, AEBetako kalamu landaketa baten irudia. Eskuinean, AEBetako estatu bakoitzak marihuanaren inguruan hartutako politiketan eskua sartuko ez duela hitzeman duen Trump. GAURB

legegile esanguratsuenari. Bestalde, beste seinale indartsu bat ere nabarmen daiteke: aho batez onartu berri dute Senatuak kalamuaren “balio ekonomikoa” eta “esanahi historikoa” aitortzen dituen ebazpen ez loteslea.

AEBetako “aita fundatzaile” askok kalamua landatzen zuten. Are, konstituzioa eta independentzia aldarrikapenaren zirriborro batzuk kalamu paperean idatzi zituzten. Bestalde, Bigarren Mundu Gerran AEBetako Nekazaritza Departamenduak “Garaipenerako kalamua” pelikula ekoitzi zuen, eta, bere interes militarren jakitun, kalamua landatzea bultzatu zuen. Gaur egun, arropa, paper, janari eta bioerregaiak ekologikoki eta ekonomikoki erakargarria izan daitekeen lehengaia da. Bere haziak proteina iturri ona dira, beganoen artean oso popularrak. Eraikuntzarako material gisa ere erabilia da, edo goi mailako atletentzako elastiko transpiragarriak egiteko.

Kontuak kontu, Trumpek adierazpen argigarriak egin ditu. Ez duela marihuanaren industrian eskurik sartuko esan

du, eta bere fiskal nagusi Jeff Sessionsen drogen kontrako gurutzadaren ildoarekin ez duela bat egingo. Horrek argi erakusten du kalamuaren geopolitikan AEBak posizio berri bat hartu nahi dutela.

KAPITALA KALAMUARENTZAT

Orain arte, kalamua legalizatu duten estatu- eta industriak zaila, oztopoz beterikoa zuen kapitala eta kredituak eskurtzea. Izan ere, AEBetako legedi federal debekatzailerik sortutako arazo pila batekin aurkitzen ziren. Gauza jakina da, noski, AEBetako legedia aurka izanik, zaila dela oso edozein arlotan aurrera egitea.

Aipatu seinale guztiokina eta Trumpek hartutako jarrera berriarekin, ikuskizun dago orain ea kalamuaren geopolitikan egoera orekatuko duten ala ez AEBek, marihuana industria turismoaren eta entretenimenduko sektorearen parte bilakatuko den, dagoeneko Kalifornian onartutako legalizazioa *online* zabalduko den ala ez... Goiz da oraindik jakiteko. Baina Trumpek hori lortzeko aukera zabaltzeko duela begi bistakoa da.



Anthony WALLACE | AFP

IKUSMIRA

ANTZERA KOAK DIREN ETSAIEN ARTEKO ITUNAREN GEROA

Nork «handiagoa» duen mehatxuka ari ziren duela hila-
labete pare bat, aurreikusi ezinezko ondorioak izango
lituzkeen liskar baten beldurra mundu osora zabalduz.
Aste honetan, ordea, Singapurren elkarrekin bildu dira
Donald Trump eta Kim Jong-un «etsai amorratuak».

Trumpek, agian nazioarteko egoerak berak premiatuta,
Pentagonoak Hego Korearekin batera egiten dituen «gerra joko garesti eta probokatzailak»
etetea erabaki du. Kimek, berriz, besteak norberaren beharra duela ondo dakienaren papera jo-
katuz, datarik gabeko armagabetze nuklearra agindu dio, hori bai, prozesuak egiaztatua izan be-
har duela hitzez hitz onartu gabe. Gailur historiko honen emaitzak ikusteko daude oraindik. Lite-
keena da Kim eta Trump hain antzekoak izatea munduko bakearentzat mesedegarri suertatzea
azkenerako. Esan ohi da, hala ere, antz gehiegi duten bikoteen patua elkarrengandik bereiztea
izaten dela. Aho bero eta misil bero diren arteko «dibortzioa».

Dabid Lazkanoiturburu

ZERGAK NORI ORDAINDU?

Rojavan, Siriako Kurdistanen, merkatariak kexu dira bi zerga sistema dituztela-eta

 **POLITIKA** / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Siriako iparraldean eredu autonomoa garatu dute kurduek, federalismo demokratikoa oinarri hartuta. Aldiz, horrek ez du Estatu siriarren presentzia erabat desagerrarazi. Eta horrek, hainbat herritan, bi administrazio ezberdinen arauetara moldatu beharra ekarri die herritarrei, batzuentzat arazo larriak sortuz, batez ere zergak ordaintzerako orduan.

Siriako gerra hasi zenetik, Rojava Kurdistango eskualdean autogobernu eredu berri bat ezarri dute indar kurduek. Estatu Islamikoaren aurkako borrokan ari ziren bitartean, gainera, antolakuntza berri bat hedatu zuten.

Konfederalismo demokratikoa eredu, estatua ez den administrazio politikoa antolatzeko helburua dute kurduek, «estaturik gabeko demokrazia». Eta hala egiten hasi ziren 2016tik aurrera. Behetik gorako egiturak eraikiz. Aldiz, azken hilabeteotan gerrak hartutako norabidearen ondorioz, Siriako Armadak ere bere kontrolpeko lurraldeak zabaltzen ditu, eta, Turkiaren esku hartzearen ondorioz, Rojavan bi administrazio elkarrekin nahasten dira uneotan.

Horren erakusle, gobernu autonomo kurduak merkatarietarako etekin gabea zerga berria ezarri dien honetan, Damaskoko Gobernuak ere bere zergak jasotzen jarraitzen du. Dagoeneko egoera ekonomiko zailean ziren merkatariak, kexu dira. «Bi zerga sistema izatea zama handia da, jarduera ekonomikoa eta gure etekin oso txikiak direlako gerraren ondorioz», salatu du Nabil Adamek. Qamishloko 34 urte-

Gobernu autonomo kurduak zerga sistema berri bat jarri du indarrean merkatarietarako arloan Siriako iparraldean. Baina, aldiz, Siriako Gobernuak ez dio utzi bertan zergak jasotzeari. Hala, merkatariak kexu dira, bi aldiz ordaindu behar dutelako, nahiz eta zerbitzu egokirik jaso ez. Tokiko agintari kurduek «segurtasuna bermatzen dietenei» ordaintzeko eskatu diete herritarrei.



ko herritarrak jantzi denda bat du Siriako Kurdistango hiri horretan.

Siriako Armadak presentzia mugatua du Rojavako hainbat ingurutan. Baina, hala ere, Siriako Gobernuak zergak biltzen jarraitzen du. Agintari kurduek, berriz, segurtasun indar eta hezkuntza programa propioak ezarri dituzte, eta iaz zergak kobratzea erabaki zuten. Horri esker, 349 milioi libera siriar bildu zituzte iazko urritik aurtengo apirilera bitartean –800.000 dolar–, Khaled Mahmud Rojavako Ogasu-neko zuzendariaren arabera.

DIRUA NORA DOA?

Merkatarien ustez, ezarritako zergak altuegiak dira dituzten diru-sarrerak kontuan harturik. Are, zerbitzu publikoen egoera ikusita, justifikaziorik ez dutela uste dute. «Ura, elektrizitatea, hezkuntza, osasuna... dena falta da. Horregatik ez du ordaindu nahi jendeak», adierazi dio AFP agentziari Fayez Abbasek, produktu kosmetikoak saltzeko duen dendan.

«Dirua nora doan jakiteko eskubidea dugu», nabarmendu du Abbasek. Eta mezu argi bat ere helarazi du: «Zerbitzuak bermatuta egonez gero, merkatariak zerga gehiago ordaintzeko prest egongo gara».

Hain zuzen ere, agintari kurduen arabera, merkatarietarako zerga sistema oinarritzako zerbitzuak hobetzeko ezarri dute. Beste sektoreek, berriz, ez dute horrelako zergarik ordaindu beharrik. Funtzionarioak dira salbuespena, Damaskoko Gobernuari zergak ordaintzen baitzikierte.

«Gobernu autonomoak zerbitzuak hobetuko ditu, eta zerbitzu gehiago ere eskainiko ditu. Baina horretarako finantza baliabide gehiago behar ditu»,

azaldu du Khaled Mahmudek. Merkatariek jasaten duten egoerari buruz galdetuta, Rojavako Ogasuneko zuzendaria herriarren esku uzten du erabakia: «Herriarrek aukeratu behar dute nori ordaindu, segurtasuna bermatzen dionari, erregaia eskaintzen dionari, zerbitzuak eskaintzen dizkionari... edo ezertxo ere eskaintzen ez dionari».

Baina farmazia bat duen Afarta ez dago lasai. «Jada ez dakigu nori ordaindu ere. Lehen gure etekinak %50ekoak ziren, baina orain egoera guttiz ezberdina da, bi zerga ordaindu behar baititugu», salatu du 29 urteko gazteak.

ZERGA PROGRESIBOA

Agintari kurduak azaltzen dutenez, ezarri duten zerga progresiboa eta bidezkoa da, eta irabazietan oinarrituta dago. Zerga kalkulatzeko etekin garbia hartzen dute oinarri. Urtean 1,2 milioi libera siriarrak (ia 2.800 dolar) baino gutxiagoko irabaziak dituztenek, adibidez, ez dute ezer ordaindu behar. Kopuru horren gainetik, aldiz, zerga tasa progresiboki igotzen da. Hala, urtean 1,2 eta 2 milioi libera arteko etekinak dituztenek %1eko tasa ordaintzen dute, eta, 5 eta 7 milioi artean irabazten dituztenek (11.494 eta 16.000 dolar artean), %7ko tasa. «Tasa %24ra irits daiteke urtean 100 milioi libera baino gehiago irabaziz gero», dio Mahmudek.

Baina merkataria batzuk zalantzan jartze dute kalkulua egiteko erabilitako sistema. «39.000 libera ordaindu behar izan nituen nire dendagatik, beraz, nire zerga txikiagoa izan beharko litzateke», azaldu du Mohamed Rifaat Khalil zapata saltzaileak. «Lan beherakada izugarria jasaten ari gara. Gale-



Aurreko orrialdean, dirua trukatzeko bulego bat, Qamishlo hirian. Goian, hiri kurduko merkatua. Delil SOULEIMAN | AFP

rak ditugu. Egia esan, ez dakit nola kalkulatzeko dituzten zergak!», adierazi du.

Zergak indarrean bat-batean sartu izanak ere haserre eragin du merkatarengan. Hasiera batean zerga bilketa 2019an hastekoa zen. «Funtzionarioen soldata bi aldiz igo da jada, eta hori konpentsatzeko egin da», azaldu du Dalbrine Mohamadek. Kontseilu lokaleko kidea da, eta egoera ekonomikoa ez dela batere ona onartu du.

Zergekin gertatzen ari dena autonomia kurduaren mugen adibide argia da. Duela gutxi arte, Rojavako herriak antolatutako kontseiluek ez dute garapen ekonomikoa esku har-

tzeko beste indarrik izan. Negozio arloan eta merkataritzan ez zuten zergarik jasotzen eta diru sarrera gehienak lehen estatuarenak ziren enpresetatik lortzen zituzten. Gainera, Estatu siriarrak ez da inoiz erabat desagertu. Armada 2012an erretiratu bazen ere, Estatu zentralizatuaren instituzioek bertan dira. Alde batetik, Estatu siriarrak lekua utzi zioten kurduak, gatazka zuzena ekiditeko. Arlo militarrean izandako nolabaiteko isilpeko itunak talka saihestu zuen moduan. Hala, gatazka batzuk izan diren arren, inoiz ez da piztu gerra irekirik indar kurduen eta Siriako Armadaren artean.

Estatu siriarrak presentzia mugatua du Rojavan, baina inoiz ez da erabat desagertu. Armadak atzera egin bazuen ere, Estatu zentralizatuaren instituzioek bertan dira

Agintari kurduen arabera, zerga sistema «oinarrizko zerbitzuak hobetzeko» asmoz ezarri dute. Ezarri duten sistema «progresiboa» da eta irabazietan oinarrituta dago

Bestalde, konfederalismo demokratikoaren izaera bera kontuan izanik, kurduak ez dute Estatua erabat suntsitu eta beste bat eraikitzea xede izan. Horregatik, hainbat arlotan Estatuaren presentzia onartu dute, modu demokratikoan antolatu ahal izan arte.

Agintari kurduak jardura ekonomiko osoa euren esku hartzerik ez zutela ere kontuan izan behar da. Petrolio industria mantentzeko, adibidez, gobernu ingeniarien beharra zuten. Hala, hasiera batean, osasun sistema, ura, elektrizitatea eta hezkuntza Damaskoren esku geratu ziren, eta Gobernu siriarrak hainbat instituzio mantendu zituen. Ondorioz, orain zergekin gertatu bezala, hainbat bi-koiztasun eman dira. Gaur egun, kurduak erabat autonomoak dira lehen hezkuntzan eta osasungintzan. Bigarren hezkuntza eta unibertsitatea ere kontrolpean dute hein handi batean, baita ur-sareak, argi-indarra eta ospitaleak ere.

HARREMANA EZ DA INOIZ ETEN

Egoera horrela, indar kurduen eta Damaskoren arteko dependentzia sortu da hitzarmen informal ugariaren ondorioz. Esaterako, Damaskok Rojavako petrolioaren erosten du, atzerriko erosketak mugatzeko. Armada siriarraren eta indar kurduen kontrolpean dauden eskualdeen arteko merkataritza ere ahalbideratzen da batzuetan.

Kontuak kontu, baina, ikus-teko dago bi aldeek bizirauteko orain artean ezinbesteko izan dituzten harremanek zer etorkizun duten. Batez ere kurduak gero eta bakartuagoak dauden honetan AEBek eta Errusiak egindako azken mugimenduen ondorioz.